

ANAITASUNA

204 zenb.

1971. urtarrilaren 30 ekoa

Jardin Txikerra, 1 BILBAO-12
Tel. 43 18 37


NAHIGABEEN ALEGIA

Ez edan errekan. Ahal baduzu, iturrian. Belen da iturri bat, eta Treveris bestea. Gogoratzen al duzue Arestiren olerkitxo hura? Eta beste iturritxo batzuk ere ba dira. Baina ez pentsa, gure herrian dena iturri denik, ez. Ba dira nahiko erreka, putzu, aintzira eta ur bilduak ere ene herrian. Ez-izenen berriketa karkaila, aski entzunen xehetasun aldabera, ezagunen hitz jario lardaska eta triputsen korrok behetik gorakoak, nahasi, eten, gaia egin dira gure herriaren larru zakartuan.

Zerbait edan nahi dut. Baina ezin dut gure egoera (ez tristea, ez alaia, ez haundia, ez ttipia, ez lasaia, ez odolbizia; horixe, egoera) raka-raka edan. Ez gara, hor zakut eta zurrut ariko diren hoietakoak. Gure jakinduria osoa gaizki irakurritako bi liburuxken menpean egonen balitz bezala. Gure munduak buruko min ugari sortzen omen dauzkigu; eta dena, gure buruaren autoak azeleradorea besterik ez duelako. Eta bide ertzetako auto hondatu bat bihurtzeko arriskuan gara.

Ezin dut ezer ulertu Ez dut ezer ulertu nahi. Dena ene gaindik dago, ni gauza guztien gainetik ipintzen ahalegindu naizelako. Oraingo honetan, egoera zait garaille, eta atzerapenak prognosis harrigarri batzuen furrustada zarpailak zaizkit. Higuindu egiten nau zer-nola mingar honek. Baina iturrietara jo dudanean, denak espiralera jotzen duela aitortu behar!

Ez dauku ez Belenek ez Treverisek balio. Beste iturriek ere... Zeintzuk ote dira beste iturriak? Dena dela, eginahalean murgildu beharko gara, aintziretako urak iturrietara irixten direnean. Bidean daudela sinesten dut. Sinestu nahi nuke. Eta sinestu nahi izatea, nahiko izanen ote da, noski. Itxaropenean murgildurik, arrak eta emeak igerian. Iturrian beti.



EUZKAL HERRIA 1971

san joanen ebanjelioaren hasiera

Hasleran ba zen Hitzza, eta Hitzza Jainkoarekin zen, eta Jainkoa zen Hitzza. Hitzza hau Jainkoarekin zen hasieran. Hitzza bidez egina da dena, eta ez da ezer egin dakoetan Bera gabe eginik.

Bizia zen Beragan. Eta bizia glizonen argia zen. Argiak ilunetan argi eglten du, baina ilunak ez zuen hartu. Hitzza zen, mundura datozen glizon guztiak argitzeko benetako argia. Munduan zegoen, eta mundua Haren bidez egina da; baina munduak ez zuen ezagutu. Berera etorri zen, eta bertarrek ez zuten haintzat hartu.

Hartu zuten guztiek, berriz, Haren ize-nean sinesten dutenei, Jainkoaren seme izateko eskubidea eman zien. Seme hauek ez dira odoletik sortu, ez haragiaren nahieratik, ez gizonaren nahieratik ere; eta bai Jainkoarengandik.

Eta Hitzza haragi egin zen, eta gure artean hartu zuen bizilekua. Eta geuk ikusi dugu Haren glorria, Aitaren Seme bakarrari dagokion gloria, grazia eta eglaz beterik.

Bermeo

Arraintzale baten heriotza

Bermeoko historia, itsasotik bizl diren herri guztiena legez, honelako jazoera tristeez beteta dago. Jazoera honeek antzina sarriagoak ziren, orduko ontziak txikiagoak eta askoz makalago hornituak ziren eta. Baina oraindino ere, teknikaren aurrerakuntza harro guztiak gorabehera, itsasoak noizean behin bere sarria eskatzen deitso gizonari. Sari odoltsua, izan ere, munstro mitologiko bat balltz bezala.

Abenduaren 18an, «Blanca Paloma» izeneko legazale* ontzitxoa, lau gizon barruan zituala, Izaroko haitzetan jo, eta olatuen indarrez behingo batean zatitu zan.

Goizeko zortzietan jazo zan guztia. Golz haretan murmoia, lalnoa, egoen Mundakako barratik itsasorantz. Izaroko isla ez zan ikusten.

Leontzio Barandika, 64 urtekoa, ez zan gehiago agertu.

Beste hiru gizonetarik bi, haitzen gainean aurkitu ziren, busti ere egin barik, mirakullu antzean. Hirugarrena igerian ozta ozta lehorreratu zan.

Istripua* ez eban inork ikusi, ez eta somatu ere, murmo! lodi haretan. Hiru gizonok Izaron igaro eben eguna, surik ez beste seinalerik egiteko era barik.

Arratsaldean murmoia ezereztu egin zan, eta, herriko ontziak etxerantz etozela, «Florian» izenekoaren patroiak ikusi zituan giza Irudiak isla gainean.

Leontzio Barandika zanaren gorpua Lagako hondartzan aurkitu eben, Urte Berrl egunean. Goian bego!

Jazoera honek pentsa eraziko ahal deusku gutxienez, arraintzale hori 64 urtegez itsasoko bizitza latza eroatera behartu eben' erakunde* sozialen sorgortasunaz.

A. P. B.

Arratia

Apaizak

Arratian ere, beste toki askotan legez*, apalzen artean talde bi agertzen dira: gazteen jokerakoak eta lehengoan antzerakoak.

Ez honeek ez hareek, ez dogu ikusten gauza askorik egiten dabenik. Denbora ta denbora daroe, ezertarako batu ez berbarik egin barik.

Non ote dago, ba, korapiloo? Gauza bat dago behintzat argi ta garbi: Arratiko Elizetan parrokoek agintzen dabela. Guztiok Gurpide obispo Jaunaren denboran izendatuak dira, eta, baten bat kenduz

gero, lehenagoko patxadakoak dira.

Noiz emango ote deutsee Arratiko parrokoek aukerarik gazte jokerako apalzei?

Artaun

Artaun da Dimako auzunerik polltenetarikoa. Jende gutxi bizl da bertan, baina beti euki izan dabe euren ume eskola.

Auzune horretako umeek, oraindino, euskeraz egiten dabe euren artean. Eta euskera larregi* maite ez dauan maistra batek eskolatzen ditu aurten. Zerl begira dagoz Artaungo guraso ta gazteak?

ZAMAKOLATARRA

Sondika

Orain dala urte bi hasi zan Sondikan euskerazko ikastola. Igaz, hamabi edo hamalru lagun Joan ginen. Aurten zazpi lagun geratu gara. Zazpi lagun, Sondika guztitik, ikastolaral Sondika hain txikia ote da, ba? Euskaldunak ote gara? Zergatik ez da euskerarik egiten? Gurasoek zergatik ez deutsee haurrei euskeraz egiten? Hala ere, euskera da gure hizkuntzal

ROSI IBARRONDO

Nabarniz

Urtarrilaren* hasieran, Uribarri auzunean, Bizko baserrian, familia bat nahiko txarto ibili da jatekoagatik. Dirudianeaz, zaku bete sulfato amoniko ekarri eben etxera, jateko gatza zalakoan. Txerria hilda gero, sulfatoaz gazitu eben haragla. Luzaro ibili dira guztiak, euren tripetako minak eta larritasunak zerenak ziren jakin barik. Azkenez kontuan jausi dira, eta zakuan, gatza barik, sulfato amoniko (amoniakoa) izeneko lur ongarrria egoela ikusi dabe. Dakigula, ez da horregatik inor hil, nahiko larri ibili arren. Txerria, alferrik galduta, bota izan behar izan dabe.

Jateko gatza eta lurretarako sulfato amonikoa oso antzekoak dira itxuraz, eta ez da hain harrizkekoa bata bestea dalakoan hartzea. Dana dala, hobe da, badaezpadan ere, holako gauzeekin arduraz ibiltzea.

Mendata

Gure herria, aintzinatik ere, oso ospetsua izan da proba ta Indar kirolelan*. Azken urteotan, asto probak egin ohi izan dira bakarrik. Igaz ez zan ezer egin, nork antola agertu ez zalako. Aurten, herritar batzuek nahiko lan egin ondoren, berriro ere lehengo ahitura aurrera eroan da.

Erregeen egunean eta hurrengoan, izan genduan bal hemen astorik nahiko. Batzuk pozik. Beste asko ez hain pozik: kokotari hatz egin, sakela hutsik, eta isilik etxera. Gure herriko «Lauankak» 49 untze* baino ez zituan egin, Muntibarko batek 51 egiten zituan artean.

Gauza bat txalogarria: ez zan istilurik sortu, xaboirik eta beste-lako txakurkeriarik ere ez zalako agertu, agirian behintzat.

Izan dogu indar eta gogo bizirik nahiko egun horreetan. Halako hamarretik bat jarriko bagendu, irripar gozoa sarri izango lizateke gure ezpainetan.

Herriko hiru mutil gazte soldadutzara joan jakuz: Zeletako Jose Luis, Menpeko David eta Beitiko Nicolas. Ondo joanak izan daltezela, eta soldadugoa ez dakioela urte bete galtzeko bide bat izan.

OKERKA



ERREGEAK, HERIOTZARANTZ?

Igaz, edo orain direla bi urte, Xabier Gereño euskal idazleak halako ohar txo bat idatzi zuen ZERUKO ARGIAN: **Erregeak, heriotzarantz?**

Bere eskribu hartan zera esaten zuen, ea zergatik ez genuen euskaldunok, jostailuak* haurrei emateko eguna aurreratzen; hau da, lehen Erregeen egunean ematen bazitzaizkien, orain Gabon egunean eman, Olentzero motibotzat harturik.

Aldi hartan eskribu hau aski* erabilia izan zen, batez ere ikastolen inguruan dabilan jende artean; baina erabiltze hutsean gelditu zen. Aurten, ostera*, ohar hura kontuan hartuta edo hartzeke*, horixe ez dakit, ikastolek pauso bat aurreratu dute, ideia hura praktikan jarriaz. Hala, kanpaina bat egin da, gurasoek Eguberrietan eman dietzetan haurrei jostailuak.



Baina kanpaina hau ez da fetxa bat aldatzearekin lasaitu, eta, horra, delako kanpaina horren bigarren alderdia: jostailuak, nolana-hikoa gabe, pedagogikoa behar du izan. Haien eritziz, hara, kanpaina hau aurrera eramateko diren arrazoiak:

Gure ustez, etxeak edo familiak eta ikastolak elkarrekin harreman hestua behar dute ukan*. Alegia*, ikastola familiaren jarraipena izaten saiatu behar da. Honegatik, haurrak gabonaldi guztian erabili behar ditu jostailuak, eta ez Erregeen egunez, ikastolara berriro hasi behar duen bezperan.

Bestalde, egiaren bidetik haurrari ibiltzen lagundu nahi badiegu, berari adierazten ere jakin behar dugu, Erregeen emaitza, hoik ipuin eta gezur direla. Ez ote da askoz jatorrago haurrei esatea, opari hoik Jesus Haurraren edo Erregeen izenean gurasoek ipintzen dituztela, haurtzarotik egia ikas dezaten?

Guraso eta irakasleok haurraren heziketa* benetan malte badugu, garaia da pentsatzen hasteko, edozer jostailuk ez lezakeela helburu* hori bete. Esan nahi baita, jostailu pedagogikoak bilatzen jakin behar dugula geure haurrentzat.

Jostailu pedagogikoak, eta ez bestelakorik, opa behar dizklogu haurrari, jostailuok haren ahalmenak lantzeko gai izan behar dutelako. Honela, Gabon gauean-edo haurrei jostailuak ipini ahal izanez gero, Eguberri aldi guztian haurra bere burua lantzen eta, jostailuak erabiliaz, zenbait* gauzaren berri ikasten jarraituko lizateke. Orduan,



jakina, egun hoietan haurrek zerbaitetan sakondu baldin* badute, ikastolara esperientzia berriekin agertuko dira, eta ez, egun batzuk hala hola edo ongi pasatu dituzteneko eritziarekin bakarrik. Eta bakoitzaren esperientzia aberasgarri izanen* da taldekoentzat, beti ere gogoan ukan* behar baitugu hezitzaileok, gaur egunean heziketa* birtuterik nagusia gizarte giroa sortzea dela, edo haurra giro horretan sar dadin laguntzea.

Nik, horrez gainera, beste arrazoi bat ipiniko nuke: batasuneko. Hau da, Irungo mugaz handiko haurrek Natibitate bezperan hartzen dituzte jostailuok; mugaz hemendikoeak, berriz, Erregeen egunean. Ez da ordua, xehetasun* hauetan ere batera joatekoa?

Oso ondo iruditzen zaiku kanpaina hori, eta hala agertu dute ikastolan haurrak dituzten hairibat gurasok.

Betoz ugariago holako kanpainak.

Datorren urtean, zergatik egin ez kanpaina hau Euskal Herri osoari begira, ikastolako mugak gainditurik? Lana gogorra izanen lizateke, gogorra baita* Bilboko «El Corte Inglés» ere.

NATXI

dezaten, daien
dietzetan, deioeezan
diogu, deutsagu
dizkiogu, deutsaguz

lezake, leike

zaiku, jaku
zitzaizkien, jakezen

Bilbao

Gipuzkoako berriak

«La Gaceta del Norte» egunkariak, Burgosko auzia hasi zanetik, ez dau bere «Página Reginal» dalakoan Gipuzkoako berririk aipatzen. Errioxa, Santander eta Burgoskoak ekartzen ditu, baina Gipuzkoakoak bat ere ez.

Nire komentarioak sobran dagoz.

Euskerazko mezak

Bilbon, jai eta jai bezperetan, 14 meza ditugu euskeraz. Aurten, igaz baino jende gehiago doa eurretara; baina oraindik euskaldun asko doa erdal mezetara, orduak egokiagoak direlako edo.

Gehien San Antongo elizara joaten da, Don Klaudio Gallastegik daukan entzute handiagatik eta haren hitzaldiak entzutearren.

Jendez Igoera haundiena euki dauana, Iralabarriko elizan ematen dan euskal meza da. Horra ere jendea pollto doa, Aita Imanol Berriatuaren mintzaldi sakonak eta euskera dotorez emanak entzutera.

XABIER GEREÑO

«ANAITASUNA BIZKAIA»
Zuzendaria: Anjel Zelaieta Gisasola
Idazkolaria ta banakolaria: Jañin Txikerra, 1
Bilbao (12).
D. L.: BI - 1.753 - 1967
Imprimatzailea: Imprenta AMADO. Bilbao.
Irarlea: RALI, Bilbao.

Bai ala ez

Begira Balonako HERRIA astekararen 1066. zenbakian irakurtzen doguna: «Jamais les Basques ne se sont sentis aussi fiers d'être Basques, qu'à l'instant où M. Belhl a embrassé sa femme et sa fille sur l'aérodrome de Biarritz». Euskeraz esanda: «Egundo sekula santa ez garela pozago izan euskaldunok, Belhl jaunak Biarritzeko aeroportuan bere emaztea eta alaba besarkatu zituanen baino».

Zuzendari berriak

Iruineko «El Pensamiento Navarro» egunkariaren zuzendari berria, Joakin Belestena jauna da; eta Jose Luis Gilberte jauna, «La Voz de España» Donostiakoarena. Azken honen zuzendari zaharra, Donostian bertan arratsalde agertzen dan «Unidad» egunkarira Joan izan da. Zuzendari berria «La Voz de España»n arl* izan da lanean, azken 13 urteotan.

«Histoire du Pays Basque» liburu berria

Hazpainen Irakasle dan Jean Louis Davant jaunak argitara eman berri dau bere «Histoire du Pays Basque» liburu, frantsesez. Argitasun gehiagorako: Jean Louis Davant, École Secondaire d'Agriculture. Hasparren (64). Francia.

Euskal kantariak Zuberotan

Joan diren Gabon jaletan, kantarien jaialdi bat izan da Zuberoko Atarratzen. Bertan parte hartu ebenak: Manex Pagola, Sarasola eta Borda, Larralde eta Etxamendi, Eñaut biak, Graxiana Hastoy eta Josepe Irigaray.

Katamixarraren arinketa galdua

Kalola barruan sarturik, katamixarra* arineketa dabil. Jendea arineketa bizkor horri begira dago, pozarren*. Baina, katamixarra azkar ibili arren, kalola beti toki berean dago. Katamixarra, nekatuta, gelditu egiten da, eta jendea, «zer pena» esan ondoren, joan egiten da.

Euskal aldizkari berri bi

Gazterien esku artean agertu berri da «Berriak» izeneko aldizkari bat.

Era ta sasol berdin samarrean agertu berri da «Salok» izeneko beste aldizkari bat.

Euskotarrei oharra

SEAT, SIMCA eta beste zenbait* Industri lan Madrilen, Valladoliden eta abar egiten dira. Futbolariak Madrilen jokutzen dabe. Eta Bilbo ta Gasteizko obispaduen burua Burgosen dago.

Hiru langile, lurperatuak

Joan dan urtarrilaren* 12an, Bilbotik Behobirako autobidea egiten ari* zirela, lurpean enterraturik behin betiko galdu ziren bizion mundutik Alvaro Ballesteros Aceves, Adelardo Tena Rubio eta José Tena Pérez langileak. Bakea zuoi, hiloi, balna ez guri, bizioi!

«Euskerazaleak» lanean eta diru bila

Bilboko «Euskerazaleak» elkarteak karta bat bidaldu berri deuse euren bazkideei, erderaz eta euskeraz idatzia, diru laguntza eskatuz. Horrez gainera, «Kill-Kill» haurren aldizkariaren eta elkar-teak berak argitaratu dituan liburuen berri ematen da: «Iniciación al estudio del euskera», «Aurtxoa I», «Aurtxoa II», «Irakurgal errez politak I, II, III» eta «Ikasteko». Argitasun gehiagorako: Colón de Larreátegui 14-2.º, Bilbao-1. Tel. 245059.

Apaiz berria

Joan dan abenduaren 20an jaso izan eban apalzgoa izpurako Michel Etxezahar gazteak, Balonan, St. Etienne parrokan.

40 milioi pezeta Debako kultur arazoetarako

Paco Ostolaza Zabala, Deban jalo zan 1888. urtean. Ipar Amerikara joan ondoren, «Mexican American Hat Company» izeneko sonbrero industria jaso eta zuzendu eban. Ostolaza jaunak dirurik asko eman izan dau, Debako Instituto, Biblioteka eta beste zenbait* gauzatarako. Orain, hil ondoren, 40 milioi pezeta Inguruko dirutza utzi dau Debako «kultur arazoetarako». Idlakez jauna, euskal kulturarako ere bai?

«Iturri» bertsolaria zauriturik

Pedro Ortuzar «Iturri» bertsolaria zauriturik aurkitzen da. Baso-lanean ari zalarik, lepazurra hausi eban. «Iturri» Muxikako Areatzan bizi da; ezkondua dago, eta hiru seme-alabaren aita da.

Ezkonlagun bila

Baserri lanean ari dan gizon ezkongee batek, ezkongee nahiz alargun batekin esposatu nahi leuke, baserrian bizitzeko. Idatzi leiteke zuzenbide honetara: UNI INTER, 38, rue Jules Labat. Bayonne (Francia).

Zestonako jaiak

Gipuzkoako Zestonan, Iraeta auzunean, Lazkao Txiki ta Uztapide bertsolariak, eta harrijasotzailoak izan dira hango jaletan. Meza nagusiko predikua Joakin Arostegi, Arronako parrokoak, eglin eban.

«Semen de Lazkano» liburu berria

Anastasio Arrinda (Anes Lazkako) jaunak eginik eta «Itxaropena» argitarazleak publikaturik, «Semen de Lazkano» (Anal arteko gorroto, XIV mendean*) izenburuko liburu bat agertu berri da. 130 orrialde ditu. Idazle honek beste liburu honeek ere eginak ditu: «La Religión Prehistórica de los Vascos», «Jauntxo Txiki», «Oto ta Pototo», «Euskal Erri zaarra». Eta laster aterako ditu: «Bederatzl ipuin xarmant eta garratz», «Euskal Erria ta erlotza». Eskabideak egileari nahiz Debako Euskal Ikastolari.

«Hacia la lengua literaria común»,

Euskaltzainburuaren liburu berria

Luis Villasante Euskaltzainburuak liburu bat argitara eman berri dau, «Hacia la lengua literaria común» izenburuarekin, «Editorial Franciscana Aranzazu» dalakoaren bidez. 127 orrialde ditu. Hitzazurrean hauxe dino Luis Villasante jaunak: «La única finalidad que persigue este capítulo es vulgarizar el conocimiento del plan básico sobre la unificación del euskera escrito que fue aprobado por la Academia de la Lengua Vasca».

Bizkaiko automobilak

1969. urtearen azkenean, BI-138.028 kotxea matrikulatu izan zan. 1970.aren azkenean, BI-155.634 kotxea matrikulatu izan da. Beraz*, 17.606 kotxe berri matrikulatu dira igaz.

Bestalde, 1969.ean 15.760 kotxe berri matrikulatu ziren, igaz baino 1.846 kotxe gutxiago.

Bizkalan, 100 pertsonako, 10 kotxe dagoz. Frantziari, oster, 20, Suezlan 37, Estadu Batuetan 45.

ABESLARIENTZAT

Dakizuenek, abestuteko beharrezkoa da Karnet Sindikalak eukitea.

Datorren urrian, Bilbon, Bizkaikoentzat, esaminak izango dira, Karnet hori lortu nahi dabeneztat. Orain hasi eta irailaren* azkenerarte presenta leitezke instantziak, esamina horreetan parte hartzeko.

Informaziorako joan Sindikatora (Sindicato del Espectáculo - Ercilla, 27, 4.º), edo idatzi ANAITASUNA-ra, eta geuk bidalduko deusueguz bete behar diren paper guztiak eta gainerako informazio osoa.



Elorriko oiloak

Bizkaiko Elorriko oilo asko kalean dabilela ta, hainbat arto ale bota izan jake, janaria izan daien.

Getaria «herri historiko-artistikoa»

Urtarrilaren* 8an Madrilan eman izan dan dekretu baten bidez, Gipuzkoako Getaria «Conjunto histórico-artístico» izendatua izan da. Getariko herritarrek, nahiz eta euren herria oso ederra dala jakin, izendatze horrek loturak eta trabak besterik ez dituala uste dabe.

Emakume alargunen elkarte

Urte ta erdi inguru ari* dira lanean, Bilbon, Kristau Emakume Alargunen elkartekoak. Bazkideak 750 bat dira Bilbon; baina Bizka osoan ba dira alargundurik, bazkide izan ez arren, 50.000 bat. Euren helbururik behinena*, alargunei laguntza ematea da, halako emakume bati sortzen jakozen premia guztietan. Hala ere, erakunde* hau ete bere helburuak* erdaldunak dira.

«Eaton Ibérica»

Iruineko «Eaton Ibérica» lantokian, 620 beharginek* lan egiten dabe. Urtarrilaren* hasieran, geldione batzuk egin ditue, hilabetero 3.000 pezeta gehiago, astean lau ordu gutxiago eta gauz lanik ez egitea eskatuz.

«Goiztiri» etxea Baionan

Donibane Lohitzuneko «Anal Artea» elkarrekin beste bulego* bat zabaldu dau Baionan, «Goiztiri» etxean. Baionako bulego hau «Txilar-degi» jaunaren zuzendaritzapean gelditzen da. Bulego honek, orritxo batean aditzera eman dauan bezala, jarraiko zeregin honek betetzeko asmoa dauka:

- albisteak eman; lehenengo batu, eta gero Euskal Herriari eta munduari ahalik azkarren eman.
- «Goiztiri» etxearekin eta «Antzerkilarien Biltzarrea» gaz batean, euskal kultura arloan eginkizun batzuk bete: liburuak, aldizkariak, diskoak argitaratu, zabaldu, eta abar.
- hizkuntza landu: 1963-64. urtean hasitako, «euskeratu batua» izenarekin ezagutzen diren lanak aurrera eroan, euskal eskoletarako testuak eta alfabetatzerako liburuak eta abar argitaratu eta zabaldu.
- dirua batu, premian dagozen euskal abertzaleei laguntzeko.

ELAIS ALAI YURRE

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6.atik 11.ra
Astegunez: 7.atik 11.ra.

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA

Javier de Aranburu, saritua

Pasai Donibane Villa edo Hurl titulua hartu ebaneko 200. urtebetetzea ospatzeko antolatu izan dan saria, Javier de Aranburu, «La Voz de España» egunkariko idazleak, irabazi izan dau, «Pasaiko erritik dator notizia» izenburuko lanarekin.

Beizaman bertsolariak

Joan dan urtarrilaren* 17an, Gipuzkoako Beizaman, bertsotan jardun izan dabe Lasarte eta Lizaso bertsolariek, Sabina Ezeiza sero-raren* omenez.

Andres NARBARTE hil da

Joan dan urtarrilean hil izan da Nafarroako Goizuetan, suak erreta, Andres NARBARTE, Nafarroako bertsolarien txapeldun izana. Goian bego!

Langileak, lanik gabe utziak

Bizkaiko Gallartan, «La Orconera» meatokian*, 51 langile bota izan ditue, langileei dagozkien arazo batzuetan euren buruak defenditu nahiez, hiru eguneko geldiduna egin dabelako.

400 langile geldirik

Joan dan urtarrilean*, Bizkaiko Aranguren herrian, «La Papelera Española» lantegian, 400 langile euren borondatez gelditurik egon izan dira, etenbako lanaldia (goizean, arratsaldean eta gauetan) txandaka egitera beharturik egongo direla adierazi izan jakenean. Lantegi honetan, 500 beharginek* lan egiten dabe.

Bertsolariak Getarian

Joan dan urtarrilean, Gipuzkoako Getariako Uztapide eta Lasarte ari* izan dira bertsotan.

Baztan haraneko II Kultur Astea

Gabon jaietan ospatu izan da, Baztan haraneko* Elizondoko, II Kultur Astea, «Baztandarren Biltzarra» erakundeak* antolatutik. «Maitena» zineman, jarraiko mintzaldi honek eman izan ziren: «Cine como elemento cultural», Jose Maria Torradellak, «Lueve sobre mi corazón» filmea eman ondoren. «Relaciones de padres e hijos», Bayona eta Betelu Jaunek. «Problemática religiosa del hombre actual», Manuel Odrizolok. «Sicología masculina y femenina», Pablo de Lucasek. «Historia del Valle de Baztán», talde batek.

Kultur Aste honen barruan, Gabon Kanten Sariaketa bat ere egin izan zan. Eta, bukaera emanez, afaria eta dantza, Elizondoko Langile Eskolan.

Gazte asko joan ziren mintzaldietara, eta Inkesten* bidez hitz ere egin eben; baina gehientsuena «betikoek» egin behar izan eben.



INDIO NAVAJOA

«Indio navajoek beren hizkuntza berezlan hartuko dute kultura heziera». Estatu Batuek baimena eman diete, beren indiar kondaira eta kultura estudiatzeko» (New York, UNESCOren kronika berezia).

Estatu Batuetan, beste estatu zibilizatu askotan bezala, herri ttipien bereizkuntzak zaintzen hasi dira. Bereizkuntza hoiere artean, hizkuntza eta herri bakoitzaren tradizio edo ohitura bereziak nabarmentzen* dira.

Antzinako heziera planteamenduak, indarraren bidez monolitismo hertsia* batean eratuak, aldatuaz joan dira apurka apurka. Estaduek konprenitu egin dute, herri baten hizkuntza eta gainerako kultura bideak guztiz egokiak direla pertsonaren nortasunerako, eta garrantzi handia dutela herri bakoitzarentzat. Bestalde, errespetatuak eta gordeak behar lukete izan, eliza gotikoak, arte lan bezala eta herriaren haro bateko erlijioaren adierazpide bezala gordeak eta zainduak diren legez*.

Washingtoneko gobernuaren baimenarekin, Estatu Batuetako Indio navajoen tribuak heziera programa bat jarri berria du. Navajoen tribua, batez ere basamortu diren lurraldeetan, «reservation» deitu tokietan bizi da, bai eta Utah, Arizona eta New Mexicoko artzaintzarako landetan ere. Beren ingrosorik garrantzitsuenak, petrolio terrenuen alokatzetik*, royaltietatik eta ganaduen hazkuntzatik* eskuratzen dituzte.

Erreserbazio hoietako 118.500 bizilagunetatik, 44.000 haur* daude eskolatzeko adinean*, populazio guztiaren % 38, gutti gorabehera. Uste denez, ikasle hoietatik % 36 heziera nagusiraino segituko dira. Orain arte ez da izan erreserbazio hoietan era honetako instituziorik; baina 1971.eko urtarriletik* aurrera, navajoek beren «junior college» deritzen eskolak ukanen* dituzte, bakoitzak 300 ikasle guttienez hartuko dituen.

Baina hona hemen guk nabarmen utzi nahi duguna. Ingelesezt mintzatzen ez direnek navajo hizkuntzan hartuko dute irakaskintza, eta, gainera, indiar historia eta kulturazko kurso bereziak emanen zaizkie. Esan liteke, agian*, % 55 irakasle baino gehiago navajo erreserbazioetakoak izango direla.

Estatu Batuetan, beste leku askotan bezala, giza legea berandu xamar egin da. Herria zanpatu ondoren eta eta beraz galtzeko zorian dagoenean, baimena eman da. Hala ere, balmen hori gauza pozgarria da.

Inoiz jabetuko ote dira adibide honetaz, munduko politika dararamaten* gizon eta elkarteak?

Hala izan dadila.

A. ONDARZABAL

daude, dagoz
diete, deutsee
zaizkie, jakez



«Analtasuna»-ren zuzenbidea

IPAR AMERIKETAN EZ DA ARDORIK EDATEN

Gaur Boni ikusi dot Bilboko Plaza Berrian. Dakikezuenez*, Boni Fernandez Bilboko Aiuntamentuko txistulari taldearen zuzendaria da.

Boni, Olaeta jaunaren Euskal Balletarekin, hiru aldiz ibilia izan da Ipar Amerikan zehar. Hirugarren honetan, hiru hilabete egin ditu handik, 68 jaialditan parte harturik.

—Garesti dago han bizitza? galdetu neutsan.

—Hiru-lau dolarregaz nahikoa genduan egun guztirako. Txilibrin albokariak eta biok egiten genduan geure jatekoa. Supermerkatuetan janariak erosi, eta gero geuk atondu. Horrela, merkeago egiten jakun.

—Zer edaten zenduen?

—Ardorik ez. Han ez dago ardoa edateko ohiturarik; eta gehiago: txartzat dauke ardoa edatea.

—Zer edaten dabe ba bazkaritan?

—Kafe hutsa, edo krematua. Mahaira, jatekoa ekarri orduko, kafea ekartzen dabe. Kafe gogorra ez baina.

Behin batean, Nevadako Elkon, gure ohiturazko bazkari batetara eroan ginduezan hango euskaldunek, eta gure ibilaldia zuzentzen eban' Rahn jauna ere gurekin etorri zan. Makailoaz batera, guk euskaldunok zarra-zarra edaten genduan ardoa. Rahn jauna, berriz, 130 kiloko gizona izan arren, baso batekin bakarrik txolindu* egln zan. Ba ditotso orduan Txilibrinek Rahn jaunari: «Baso bategaz horrela ipinten zara? Bilbon guk 25 eta gehiago edaten ditugu». Eta amerikanoak erantzun: «No possible, no possible».

Han ez dago tabernarik. Edateko, kafetxeetara joan behar da. Kafetxe apainak, argi gorriskekin. Klubak dira. Zerbitzariak txandaka lan egiten dabe, edozein langilek legez, eta ez, Euskal Herrian egiten daben modura, egun guztian. Jeneralean, zortzi ordu, eta gero beste batek hartzen dau erreleboa.

—Orain esaidazuz beste gauza batzuk. Euskal Herrian 1970. urtearen azkenean jazoriko gertakariak buruz, esan dabe ezer hango egunkariak?

—Bai, eta asko esan ere. Berdin telebisioak.

—Eta zer dinostazu lurgangintzaz?

—Bidean zoazala, ez dozu han Euskal Herriko lako solo txikiak ikusiko. Minnesotan adibidez, ezker-eskuin, inoiz amaitzen ez diren artotzak ikusiko dituzu. Hango soloek itsasoa dirudie. Lan guztia makinaz egiten da.

—Jende asko joaten jatzuen ikustera?

—Bai. Askok ere asko. Gehienetan, tokia bete beteta. Eta gus-tura egoten ziren, gainera.

—Zer txalotzen eben gehien?

—Zuberoko dantzak, txistua, Larrain Dantza, Makilla Dantza, eta abar.

—Aurtengo zuen exitorik haundiena non?

—New York, Boise eta Oklahoman.

—Eta datorren urterako asmorik?

—Hori Olaeta Balleteko zuzendariek erabakiko dabe. Leku asko-tatik deitzen deuskue.

Hotz egiten dau, eta geure elkarrizketa amaitu egin behar dogu. Ondo etorriak, Olaetarrak, eta zorianak.

XABIER GEREÑO

CHINAKO IPUIN BAT

Lehengo egun batetan Ipuin bat kontatu daute, eta, azken bolada* honetako gertakariekin* zerikusia duelarik, polita iruditu zait hemen azaltzeko, ondorio interesgarriak atera dietzakeogu ta.

Ba omen* zen, Chinako herrixka batetan, bederatzi seme-alaba, emaztea eta amaginarreba zituēn' gizon bat, eta denak etxe ttipi batetan bizi omen ziren.

Beti ere istilu gorriak eta premia ikaragarria izaten omen zituzten. Etxeko egoera hura* konpontzeko asmotan, herriko jakintsuarengana jo omen zuen gizonak, erremedio bila. Zer gertatzen zitzaion azaldu zionean, honela erantzun omen zion jakintsuak: Sar ezazu katu bat etxean, eta hemendik hiru egunetara etor zaitez niregana berriro. Hiru egun pasa zirenean, han dator gizona lehen baino larriago, istiluak haunditu egin zitzaizkiola ta. Jakintsuak honela esan omen zion:

Utz ezazu katua bertan, eta zakur bat sar ezazu. Hemendik hiru egunetara berriro etor zaitez. Hirugarren eguna pasa bezain laster, lehen baino askoz ere larriago joaten zaio gizona jakintsuari, bizimodua gero eta jasanezina gertatzen zaiola esanez. Jakintsuaren erantzuna: utz itzazu zakurra eta katua etxean, eta sar ezazu gainera behi bat. Hemendik hiru egunetara etor berriro niregana.

Epea* pasa zeneko, han zegoen gizona lehen baino larriago eta hestuago. Jakintsuak oraingoan: atera itzazu etxetik katua, zakurra eta behia, eta hiru egun barru etor berriro.

Berriz itzultzen denean, pozez beterik joaten da gizon hura* jakintsuarengana, hiru animaliak ateraz geroztik etxera bakea etorri dela ta, eskerrak emanez.

Gure artean izan diren azken boladako gertakariak horrelako zerbait sentierazi daukute. Zazpi gizonen bizitza arriskuan ipini da; egundainoko istiluak izan dira... Hori pasa denean, danok lasaitu egin gara. Heriotzeak ez du erremediorik, eta alderdi horretatik poza sentitzea bidezkoa da. Baina, arren, ohar* gaitzen, gertakari hoi erroak*, Euskal Herriaren egoera larria, herri eta gizon bezala dugun hestuasuna hortxe gelditzen direla, eta gure eginbeharrak ere zutik irauten duela.

A. SAGARNA

dautate, **deuste**
dietzakeogu, **deiskioguz**

ezazu, **eizu**

itzazu, **eizuz**

zaio, **jako**

zait, **jat**

zion, **eutson**

zitzaion, **jakon**

zitzaizkion, **jakozen**

Euskera Frantzian

Frantziako gobernuak hartutako erabaki baten arauera*, batxileratua egiten ari* diren ikasleek, eurek maiteen edo nahien daben hizkuntza honeetarik bat hautatu* leikee: euskera, katalana, bretoina edo probentzala. Frantziako Flandrian mintzatzen dan «flamenkoa», oster, ezin leikee aukeratu, Belgika ta Holandako hizkuntza ofiziala dalako.

Barakaldo

Herriko auzoak

Barakaldo 45,42 Ha. ditu hestu-zabalean. Huria, Nerbion ibaiak Galindo eta Kadaguarekin osotzen dauan ibar zabal batean hedatzen* da.

Ibar horren erdian, muna* batzuk egoen XIX mendean. Euren zehar baserri batzuk, ortu artean: Landaburu, Zaballa, Arrandi, Arana, Karrantzaidu, Arteagabeitia, Zuazo, Beurko, Bagatza, Lurkizaga, eta abar. Gaur egunean, hortxe bertan aurkitzen da herriko kaskoa.

Baina herriak ibarraren beste toki batzuk ere hartzen ditu: Gurutzeta, Ugarte, Landabeko, Erretortu, Lutxana, Bitoritza, Llano, Burtzeña, Irauregi, Zubilleta, Beteluri, Gorostitza, Mendierreka (El Regato), eta abar. Toki horreek, gaur egunean, auzoak izatera etorri jakuz.

1854. urtean, «Fábrica de Hierros y Aceros de Nuestra Señora del Carmen» jaso zan. Ibaratarrek, Bizkalan Labe Nagusiak ipini guraz, Barakaldoko «Desertua» deritxon tokia aukeratu eben. Desertua Nerbion ondoko faduretan* egoen; Karmeldar fraileen etxea eta beste etxe bi bakarrik egoen han.

Fraileen etxea eta beste guztia desegin eben, fadurak sikatu eta Labe Nagusiak jaso. Obra haundiak egin ziren: Ontzientzako molak, antzina portutxo xume* bat egoen tokian: «Portu». Alboko mendietatik mea* ekartzeko trenbideak: «Orconera» eta «Franco-Belga». Handik laster, Trianotik Somorrostrorainoko trenbidea. Olen* alboan etxeak jaso ziren arineketan, eta beheko munen artean herri berezi bat sortzen hasi zan. Gaur egunean, 120.000 bizilagun inguru ditu.

Ikusten danez, ordutik honantz Barakaldo osorik aldatu da. Baina gauza honeekin esan gura dodana hauxe da: Barakaldori jazo jakona Euskal Herri guztiari jazo leitekiola.

Prentsa elkarrizketa alkategian

Abenduaren 23an, Luis Alfonso Caño alkateak —Inginadore* gaztea bera— kazetari* eta berri emaileak bildu* zituan alkategian. Bertan, Udaleko* asmoak eta Kezkak azaldu eutsezan: hurigintza*, kale berriak, argia, estoldak*, eta abar.

Eskolak, kirola* zelaiak eta Argalarrio mendi gallurreko parkea ere aipatu eutsezan optimismo handirekin. Gure herriak aspaldidanik behar zituan gauza honeek, eta Udala ausartu da azkenez arlo horretarantz abiatzera.

Burtzeñako autobide-gurutzea, Bizkai eta alboko herrilaldeetako* jendeen kezka ikaragarria da. Hemendik gurutzatzen dira Santander eta Santurtzerako joan-etorri guztiak. Bilbao-Santurtzerako bidean, ia milioi erdi lagun dabilta, haren hegaletan aurkitzen baltira Portu Handia eta Bizkaiko ola nagusiak.

Arazo guzti horreek atontzeko, 420 milioi pezeta beharrezkoak zirela esan eban alkateak, eta herriaren eta Industrialarien laguntasuna eskatu eban.

JOAN MARI MENDIZABAL

1970. URTEAN EUZKERAZ ARGIT-

Hemen, lehenago esan bezala, euskerazko liburuen izenak bakarrik jasotzen ditugu, edozer gai duelarik eta nahiz erdera-euskeran egon.

Ba dakigu, ba direla beste zenbait* liburu, beren barnean euskerazko zatiak dituztenak, edo euskerari buruz ari direnak; baina haien aipamena egiten hasiko bagina, ez zaigu ahal mugatzerik. Beraz*, honegatik, euskerazko literaturatik at* dagoen guztia uzten dugu. Hau da, euskaldun Irakurleentzat egina bakarrik hartzen dugu. Bestetariko zenbaitzuk ere, euskal literaturaren aldetik, goresmenak merezi badituzte ere. Hauen arteko lirateke «Añamendi»-ren **Enciclopedia General Ilustrada** (Cuerpo B) Vol. I - Literatura, J. Haritschelhar-en *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, eta abar.

Lerro hauetatik konturatuko zara, Irakurle, argitalpenak goraka datozela, eta hobekuntza agertzen dela zer esanik ere ez. Galetan ere gaurkotasan gehiago agiri da. Argitalpenak, batez beste, 800 aletik 1.500-era izaten dira, inoiz askoz gehiago, baina azkoz gutxiago ere bai.

Falta direnen berri ematea bihotzez eskertuko genuke. Baina hurrengoan hutsik ez egiteko, igazko eskari bera egiten diegu argitaratzailerik eta egileei: beren liburuetarik ale bana Euskaltzaindiaren (Ribera, 6. Bilbao-5) liburutegirako bidaltzeko. Liburua ezagutarazten lagunduko dugu, gure liburutegia, guztion euskal liburutegia (Euskaltzaindiarena) aberasten lagunduz.

JUAN SAN MARTIN
Euskaltzaindiko Idazkaria

Afrikar Iraultzaren alde, Frantz Fanon (Arantza Urretavizcaya eta Ibon Sarasolak euskeratua). Lur Argitaldaria. Donostia.

Alkain aita-semeak, Iñaki Alkain - Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.

Ardo ta ogi Martxelín, José María Sánchez-Silva (J. M. Satrustegik euskeratua). Gómez Argitaldaria. Iruña.

Argi bat iluntasunean, Xabier Gereño. Lur Editoriala. Donostia.
Atano ta Estrada bertsolarlak, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.

Atheka gaitzeko oihartzunak (erderazko Itzulpenarekin), J. B. Dasko-nagere. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia

Azkoitia'ko zenbait bertsolari, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.
Baserriko irabazbideak, Zabalegi Nekazari-eskola. Donostiako Aurrezki Kutxak argitaratua. Donostia.

Batasunaren kutxa, Euskal Idazleen Elkarteak L. Mitxelena-ren agintaritzapean hartutako erabakien gainean G. Arestik eta X. Kintanak moldatutako liburua. Lur Editoriala. Donostia.

Bertrand Russellen azken Iritziak, Elhazarrek euskeraz emana. Irakur sail. Donostia.

Biblia-ikasketa. Catequesis bíblica (Euskera - erdera), Anastasio Al-bisu eta Donato Arrinda. Gastelz.

Bidasoa aldeko bost bertsolari, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.

Bidean gora (olerklak), Muntategi'tar Sabín. Bilbao.

Biotz begietan, X. Lizardi. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.

Bizi garratza - Mendu zaharrak (bi antzerki), Agustín Zubikarai. Irakur sail. Donostia.



RIKARDO ARREGI

(1942 - 1969)

Igazko bezala aurten ere, urte barnean argitaratu diren euskerazko liburuen berri eman nahi genuke, orduan bezala huts bat baino gehiago egiten* dugula jakin arren. Huts egite hau, joandako urtez liburu batzuk berandu argitaratzeak, eta denon berri zehaztasun guztiarekin ezin jakinez.

Igazko hutsak bete nahirik, zerrenda berri bat eman genuen Egan-en (ikus Egan, 1-3, 1970.ekoa, 133-136 orrialdeetan); baina, hala ere, bizpahiru huts egin genituen. Orduango 47 libururen tituluei ere, beste hauk gehitu beharrean aurkitzen gara: Timun Mas, S.A.k argitaratutako **Errialde guztien historia**, S. Werner Watson-ena, J. Goikoetxeak euskeratua; eta Baionako Imprimerie des Cordeliers-ek argitaratutako **Obrak mintzo**, J. B. Etcheberryrena.

TARATUTAKO LIBURUAK



Blzkalko dantzak (Euskera - erdera), Jose Luis Etxebarriak Sabín Larrearen laguntzarekin. La Editorial Vizcaína. Bilbao.

Blzkalko euskal idazleak, Mikel Zarate. Bilbao.

Egaztien mundua, J. Dorst (J. M. Aranaldek euskeratua). «Margo-ederdun Enziklopedia», Timun Mas, S. A. Barcelona.

Eguberri abestiak (bilduma). Edill. Donostia.


Ibiltze azkarraren mundua, C. Dollfus (Jose Luis Ansorenak euskeratua). «Margo Ederdun Enziklopedia». Timun Mas, S. A. Barcelona.

Itxura-aldaketa, Franz Kafka (Xabier Kintanak euskeratua), Arantxa Urretavizcayaaren hitzurreaz. Lur. Donostia.

Izartegia, R. Guillot (L. Dorronsorok euskeratua). «Margo Ederdun Enziklopedia», Timun Mas, S. A. Barcelona.

SUSTRAI BILA

Iarresoro



Irakur sail

Eguberri kantak (bilduma). «Jaunaren dela». Lazkano.

Eskual alorretik (bilduma). «Ikas». Baiona.

Españi'ko olerkariak euskeraz (II eta III aleak), Etxebarria'tar Juan Anjel-ek euskeratuak. Bilbao.

Estelas funerarias del País Vasco (Erdera - euskera), José Miguel de Barandiaran. Txertoa. Donostia.

Euskal esku-langintza (I eta II tomoak, euskeraz eta erderaz), Garmendia ta Larrañaga'tar Jon. Editorial Auñamendi. Donostia.

Euskal kantak (bilduma), argitaratzailearen izenik gabe. 1970-eko malatza.

Euskal protestantismoa zer zen, Joanes Leizarraga. Lur. Donostia.

Glza soñia, Goikoetxea'tar Iñaki. Euskerazaleak. Bilbao.

Goierriko lorak, Inozentzio Olea. Auspoa. Tolosa.

Gonzalve edo Ostatu betea, Elémir Bourges - P. Lafitte. Collection «Gure Herria». Baiona.

Haur besoetakoa, Jon Mirande. Lur. Donostia.

H gabeko umoria, Iñaki Linazasoro. «Kuliska Sorta». Itxaropena. Zarautz.

Hunik arrats artean, Anjel Lertxundi. Lur. Donostia.
Ibar ixilllean, Antonio Valverde «Ayalde». S.G.E.P., S. A. Donostia.



Literatura eta kritika, Patri Urkizu. Lur. Donostia.

Liturji gorazarreak, II, Etxebarria'tar Juan Anjelek lateratik euskeratua. Bilbao.

Loiolako Iñigo (antzerkia), Arrizabalaga'tar K. M.. Zarautz.

Mendebaleko ekonomiaren historia (Merkantilismotik 1914-era arte), R. Salzarbitoria, I. Sarasola eta A. Urretavizcaya. Lur. Donostia.

Meza barria, Jose Domingo Ugartetxea. Markiñako Karmeldarrak.

Noelak eta berze kanta espiritual berriak, Joannes Etcheberri. S.G. E. P., S. A.. Donostia.

Peru Abarka, (Euskeraz eta erderazko itzulpenaz). Editorial «La Gran Enciclopedia Vasca». Bilbao.

Pierre Topet-Etxahun (Barkoxe kobleriaren bizitzea laburki), P. Lafitte. Editions «Herria». Baiona.

Salbatore Mitxelena (bilduma), San Martin, Azurmendi, Txillardegui, Villasante, Torrealdai, Etxaniz, Agirretxe, Lekuona, Schwob. «Jakin sorta». Arantzazu - Oñati.
Soziologiaren hastapenak, Andoni Sagarna. Lur. Donostia.

Sustrai bila, Larresoro. Irakur sail. Donostia.

Xomoroen mundua, F. Lacroix (M. Iturbek euskeratua). «Margo Ederdun Enziklopedia», Timun Mas, S. A.. Barcelona.

Zubeltzu ta Saikola bertsolariak, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.

Lurraren kondaira, Salvador Garmendia. Irakur sail. Donostia.

PETE SEEGER

Otsailaren, 9. an 7,30 an, izango da kantari Donostian, Victorla Eugenia teatroan.

EUSKAL ERDAL LIBURUAK

Mito zaharrei berriak darraizkie*. Orain urte batzuk, oso modan zegoen euskal gaietaz erdal liburuak argitaratzea, eta horri «Euskal» kultura deitzen zitzalon. Askok, ordea*, ba genekusan, hura* «Erdal» kultura eta bibliografia aberastea besterik ez zela, eta, Euskal Herriko galetarako ere erdera erabiltzean, euskera bere gaztelu propioenetik ere zokoratzen zela, euskaldunon kaltetan eta erderen onetan.

Gazte talde bat, printzipalki «Jakín» aldizkariaren Inguruan bilda*, euskal eta mundutar gai guztiak euskeraz idazten eta erabiltzen saiatu zen; eta, haren fruitu bezala, oraingo editorial berri guztiok sortu dira: Lur, Irakur Sail, Etor, Jakín... Gazterlak aurrerako pausoa eman zuen. Berauen oldarrez* iharrosirik* eta eragin da, ohizko* editorialek, batzuek behintzat, ordurarte erderaz soilki* publikatzen zutenek, aurpegira jaurtiki zitzalena* gantea* altxatu dute, eta oraingoan, bizpahiru Pio Baroja gelditu arren, erderaz batera euskeraz ere jartzen dituzte textuak. Ongi adi bedi berau, hots*, lehenik erdal textua egin ohi da, eta gero euskal itzulpen narras* eta apal bat ondoan jarri, erderaren parean askoz ere pobre, urri, eskas eta teknikagabeagoa dena. Giro bera susma daiteke zenbait politika aldizkaritan ere.

Zergatik berau? Editorial etxe hoiek behin baino gehiagotan esan dute, ezin daitekeela euskeraz bakarrik publikatu, ekonomiaren kontrakoa baita*, irakurle eta erosle guti bailegoke*. Beraz, erderaz edo bitara argitaratu beharra dagoke*. Justifikazio horrek ez gaitu osorik betetzen, beste editorial batzuk euskeraz bizi baital-tezke*; baina utz dezagun kontu hau, eta sinets dezagun haien arrazioa, xehetasun handiagotan sartu gabe.

Dena dela, erdal liburu soilak* publikatzen diren artean, superluxozko itxuraz, gainera (uholdeek eta euriteek ustel* ez honda* ez ditzaten, editore jaun batek dioenez), ez ditugu hain gaizki ikusi behar, oraintsudanik erderaz eta euskeraz argitaratzen hasi diren editorialek.

Gainera, kasu batzuetan, euskal liburuen erdal itzulpena aldean jartzea justifikatuta egon daiteke. Liburu zahar batzuk (Etxepare, Axular...) oraingo mintzairatik nahiko urrun edo ezezagun zaizkiguna, irakurlearen probetxurako, argitu beharrezkoak dirateke*; eta, ohar batzuk aski* badira ere, ez dago hain gaizki erdal itzulpena. Poesiak ere, gai laburrak direlarik, bi hizkuntzatan jartzea barkakizun dateke*. Hemendik aurrera, ordea*, nobelak, teatro lanak edo saloak direnean, gauza ez dela hain barkagarri uste dut. Baina problema hau hain gaizkoatua* denez gero, ohar batzuk egin nahi ditut honetaz.

Gaizki deritzedala euskeraz eta erderaz datozen liburuel esan dut, eta beronen zergatia esplikatu behar dautzuet, gaizki aditurik gerta ez dadin.

Ez naiz ni «euskerak jainko» beti birjina eta beti ederraren adozatzaile holetako bat, euskera euskaldunen arteko komunikabide soil* bat besterik ez balta enetzat; baina, hori bai, euskera euskaldunon komunikabide jatorrena eta naturalena da, geure geurea duguna. Beraz*, euskaldunon kultura goratzeko, komunikabide honen trebetze eta goratzea lortu behar dugu, honetara euskal nortasunaren aurreramentua lortuaz. Haugatik bakarrik, eta ez besteak baino politago edo zoragarriago delako, ari* naiz beronen alde, Euskal Herriaren hizkuntza jator bakarra delakoan.

Ba dakigu, euskera gaitu, trebetu eta bizkortu behar dugula edozein kultur materialarako, eta, gainera, berau posible dela. Fillipinetako tagalog hizkuntzaz eta Afrikako beltzen hizkuntzez goi mailako kultura bat ematea posible bada, zergatik ez euskeraz?

Dena usadio- eta ofizialtasun-kontua da. Ofizialtasuna ez dago oraindik gure eskuetan. Usadio- eta trebetzeko saloak egitea, ordea*, bai; eta berau da, hain zuzen, editorial berri guztiek egiten dutena euskal eta Unibertsal kultura euskeraz ematean: kultura irakatsi eta bide batez hizkuntza moldatu eta egokitu.

Baina guztioi dakigu, neronek ez dut ukatzen behintzat, Inguruko mundu ofizial guztia erderaz egotean, euskaldun guztioi erraztasun handiago dugula kultur galak erderaz irakurtzeko euskeraz baino, erderaz hizkuntza batua eginda baita* eta hitzak ongi ezegutzen ditugulako. Euskeraz, berriz, oraino ari* gara hizkuntza batzen eta kultur hitzak egokitzen. Hau dela ta, askotan, ohiturarik eta eskolarik ezaz, nekatu egiten gara kultur liburu bat euskeraz irakurtzean, buruz ahalegin haundiak egin behar baitugu haria ez galtzeko, eta zenbait* hitz oraino, zentzu horretan, sekula entzun edo ikusi ez dugulako.

Berau logikoa da. Kultur iraultza* bat da gurea ere arazo honetan. Erditzeko* puntu honetan nekeak eta minak sufritu behar ditugu; ba dakigu. Min hoik guztioi beharrezkoak zaizkigu, berolen ondoren gaudituko baitugu geure oraingo egoera larri hau.

Baina zer pasatzen da Erdal-Euskal liburu hoiekin? Ondoko orrialdean dagoen erdal textua (beti errazago, apainago eta zehatzagoa) eten gabeko tentazio bat da, eta maiz* askotan euskeraz irakurtzen hasten garen liburua erderaz bukatzen dugu, hirugarren edo laugarren orrialdetik hasita. Neroni bederen* sarritan gertatu zait.

Hala ere, ba daude beste modu batzuk, liburuak bi hizkuntzatan atera ahal izateko, honela editoreen ekonomia sakratua begiratuaz, eta euskal irakurleari hainbeste tentazio ez sartzeko; beti zerbait gelditu arren. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones-ek argitaratu berri du Daskonagerreren «Athea gaitzeko oihartzunak», hasieran osorik euskeraz eta bigarren partean osorik erderaz, bi liburu balira bezala. Muñoyerro Jaunak ere (Munitibar ezizenaz firmatzen ohi duenak) are* modu orijinalago batez publikatu zuen «En la luna también se habla vascuence» eta lagun batek egin zion euskal itzulpena «Ilargian ere euskeraz». Liburuaren alde bakoitzetik ipuina hizkuntza batez hasten zen, itzulpena ikusteko liburu osoa bueltatu beharra egonaz, honela euskal irakurleari tentazio gutiago sartuaz. Baina zoritxarrez ez dira honela gehienak publikatzen, elkarren ondoko itzulpenaz baizik, honetara, «euskerak jainkoari» teoriariz berea eman arren, inork kasurik ez egiteko paradan* jarriaz.

Are* lan txarragoak ikusi ditugu arlo honetan, hala nola, aspaldi ez dela, Bizkaiko editorial batek argitaratu duen «Peru Abarka», orri berean bi lerrotan euskera eta erdera jarriaz. Dudatu gabe, irakurleari, kontura etorri gabe, begiak erderazko textura joanen zaizkio.

Zertarako, bada, honelako «Euskal» liburuak? «Euskera jainkoaren» aurrean justifikatuak izateko? Abertzale del* gaitzaten ote? Gazteen kritika maliziatik ez biltzeko agian*?

Praktikan, dena dela, horrelako liburuak (erdera euskeragandik urrun ez dutenak behintzat) erderaz bakarrik publikatuak ballira bezala ditugu. Noiz arte? Eta noiz hasiko dira, horrelako liburu askotan, lehenik euskal textua egin eta horretatik erdal itzulpena egiten? Zeren* orain arteko askotan argiro agertzen baita*, euskal textua halako itzulpen txar eta eskas bat besterik ez dela, konplizeagatik jarrita.

TRAUKO

daude, **dagoz**
deritzet, **deritxoet (erixten deutset)**
dezagun, **daigun**
ditzaten, **daiezan**

gaitzaten, **gaiezan**
genekusan, **genkusan (ikusten genduan)**

zait, **jat**
zaizkigu, **jakuz**
zaizkio, **jakoz**
zion, **eutson**
zitzaien, **jaken**
zitzaien, **jakon**

Axuria

Gernika ta Zornotza bitartean aurkitzen da Axuria. Auzune zoragarria. Baserri zuri ta ederrez hornitua. Baserritar gehienak nekazaritzara dedikatzen dira. Ba dira batzuk, Gernika ta Zornotzako lantegietan behar* egiten dabena.

Gaur egunean, beharrizanezko gauza baten hutsean aurkitzen gara: argirik ez dogu auzunean. Ez eta inguruko auzunetan ere: Maquina, Urrutxu, Albiz eta Ibarrurin. Gure herriko arduradunel lotsaz jausi behar litzakloe aurpegia; baina egia hau da: hogeigarren mendean*, eta gu argi elektriko barik.

Baina gehien minduten gaituana ez da hori. Hemendik hurre aurrerapen guztlak, eta hemen...? Honek, hainbesteko desberdintasun honek, benetan minduten gaitu. Gizon batzuek, euren nahil dabena guztia; eta beste batzuek, herri barruan, oraindino argirik gabe. Bide ertz guztlak, propagandaz josita; baina, handik hurbil*, itzalezko atzerakuntza. Batzuentzat aurrerapen osoa: telebista, Irrati, eta abar; beste batzuek, ostera*, beharizan behinenak* lortu ezinik, jo ta ke. Noiz arte hainbesté ezberdintasun?

Axuriko auzunean kooperatiba bat dogu, «Landoste» deritxona. Elkarte hau abelgorri* kooperatiba da. Bertan, auzuneko bost baserritarrek dabe parte. Hirurogeltamar bat abelgorri egongo dira: hogeitamar bat behi eta berrogei bat txahal.

Abeltegia haitz bizi baten gainean jasota dago. Bertan, atzenengo arau berri guztlak oso ondo beteta aurkitzen ditugu. Bost baserritarrok guztiz ondo konpontzen dira. Hona hemen inguruko baserritarrentzat irakatsi sakon bat. Baserritar honeek hutsune handi bat dabe: Argirik ez. Nolaz arte Iraungo dogu era honetan? Non dago herriko agintari ta arduradunen ekintza?

Auzunean arandegi bakarra dogu, «Kili-Kolo» deritxona. Bertan, zahar eta gazte biltzen* gara, herriko ta atzerriko gorabeherak azaldu eta txikito batzuk edateko. Arandegi hau herri osoarena da; eta bertan, ordaintze aldetik, askatasun handia dagoenez gero, nolizik behinean hutsune batzuk egoten dira diru konponketan. Eta, gaua heltzen danean, «butanoa» biztu beharrean aurkitzen gara. Zer dala ta? Argirik ez.

Auzuneko apaiza, urte batzuetarako zigorragez, Zamorako espetxean dogu. Bera datorrenerako, Axuria argituko ote dogu? Gure gizentasuna eta herri-maitasuna, noizko? Zertarako gure batzar eta hitzaldiak? Non dira gure erabaki sakonak? Zertan gure asmo «onak»?

RIKARDO

Elgoibar

Artikurik onenak

ANAITASUNA, 202. zenbakia.

Lehenengo artikulua, «Ipar Vietnamgo Eliza». Asko gustatu zalgu artikulua. Gogorra da, baina egia.

Bilgarren artikulua, «Falemos galego», Gadu dalakoak Izenpetua. Berri emalleetan, Zornotzako Barreski eta Gernikako Deunoro.

Euskerazko kursilloa aurrera

Esan genuen bezala, jende mordo bat ari* da, euskera ikasteko ahaleginetan. Orain, berriro jarraitzeko behar ziren baimenak etorri dira.

TALDEKO BESTE MARISABEL

Elizako Berriak

Bikario berria Iruinean

Iruinean, apaizei kontsultatu ondoren, Tabera Kardinal Jaunak Jose Maria Imizkoz Barriola izendatu dau diosesiko Pastoral Arozotarako Bikario. Imizkoz jaunak 496 boto izan zituan, Diaz de Cerlok 389, Carmelo Velascok 358, eta Jesus Armendarizek 291. Nafarroan diren 907 apaizetarik 802-k parte hartu eben botazioan. Beraz, % 88,4-ek.

Nafarroako eskualdekatzea

Nafarroako Eliza jarraiko eskualdeetan* banaturik gelditu da: Iruina (huriburua, eta Cuenca, Esteribar eta Olzako artziprestalgoak). Behe aldea (Erribera, Korella, Solana Beheko eta Tudelako artziprestalgoak). Goi aldea (Anue, Aralar, Baztan, Bost Herriak, Larraun eta Doneztebeko artziprestalgoak). Estella (Berrueza, Estella, Ilzarbe, Solana Goiko, Biana eta Yerriko artziprestalgoak). Auiamendikoa (Londida, Erronkari-Salazar eta Orreagako artziprestalgoak). Erdi aldea (Aibar, Olite eta Orbako artziprestalgoak).

Bizkaiko elizak

1970. urtean, Bizkaiko Obispaduak 42 milioi pezeta eman izan ditu, elizak jasotzeko. 8.680.000 pezeta lurra erosteko, eta 21 milioi hargintzarako; 2 milioi abade etxeak erosteko, eta 13 milioi parroki berri bi egiteko.

1971.eraiko presupostua 17.697.000 pezetakoa da. Eta beste 20 milioi beharko direla uste da.

Esperantzarik ez dogu galdu, behin edo behin, ANAITASUNA honentzako ere laguntzatxoren bat izan leitekela.

Bizkaiko «Caritas» erakundearen* dirutza

1970. urtean, Bizkaiko «Caritas» dalakoak 16 bat milioi pezeta eman izan ditu behartsuentzat. Zenbait* diru, Biafra, Perú eta Pakistan aldera ere bidaldu izan da.

ANAITASUNA

**BIDALDU 5 ANAITASUNA NERE
ADISKIDEEN ARTEAN BANATZEKO**

Izen-abizenak

Bizitokia

Herria Probintzia

Eibar**«Euskeralagunak»**

Askotxok Itaundu* deuskue «Euskeralagunak» izeneko elkartearen berri, zela eta nola egin behar daben harpidetza jakin nahirik. Gehienok ba dakie, 25 pezeta dala elkarte horren hilabeteko kuota txikiena; hala ere, ez dakie nori eman behar deustoen izena, edota nork diharduan kuota horreek kobratzen. Horrelako horreek, hemen ezartzen dogun txartel erakoa bete daikoe, eta besterik gabe ikastolara bidaldu.

Izen eta bi apellidu
 Bizilekua
 Telefonoa
 Zer kuota ordainduko dozu?
 (Kuota txikiena, hilabeteko, 25 pezeta da; hortik gora nahi dozuna).
 Zeln modutan ordaindu nahi dozu? Banko, Aurrezki Kutxa ala kobradore bidez?
 Eta noiz? Hilabetero? Hiru-hilabetero, sei-hilabetero ala urtero?

Jakin eizue, elkartearentzat hobe lizatekela, kuotaren ordainketa urtean behin edo ahal danik aldirik luzeenean egitea, eta Banko edo Aurrezki Kutxaren baten bitartez, ahal bada.

ETXE ALDAKETA

Harpidedun batek etxe bizitza aldatzen dauanean, zuzenbide berria jakin eragin behar leuskioe ANAITASUNAKO zuzendariei. Osterantzean*, korreo lagunek «joantzat» edo «ezezaguntzat» jo izaten dabe hasiera batetako zuzenbidea; eta guk geuk, Albistariok, ibili

behar izaten dogu harpidedunen aztarrenaren* atzetik, «Interpola» bera bagina legetxe*. Ez ahaztu ba, etxe aldaketa egin behar dozuean. Aurrez eskerrik asko.

«EGURENTARRA»

Urtearen azkeneko ANAITASUNAREN zenbakian, Zuloagari buruzko eta «Egurentarra»k izenpeturiko albisteak* irakurri ahal izan genduzan. Ongi etorri, «Egurentarra» ezezagun hori. Zatoz, gura dozuean, albiste emate honetara.

C. D. EIBAR

Urtarrilaren* 30ean, berrogeltasol urte dira, Club Deportivo Eibar sortu zala. Ez dira artaleak* gero horrenbeste urte. Urte horreetan Club Deportivo dalakoa erabat* mamitu* da, gure herri honetako kultura nahiz deporte arazoetan. Ez da alferrik iragan* ia mende* erdi.

46. urteurrena dala ta, Mendi Argazki Sariketa bat antolatu dabe. Bazkideen artean horrenbeste mendigoizale dituan elkarteak begira dalala beti aurrera, gora, nekatzeke* eta etsitzeke*, gol mailetara iritxi* arte. Danok espero dogu, eta herriak behar dau. Zorionak.

ALBISTARIAK

Egunaren buruan, mila pertsona pasatzen dira zure kotxearen paretiz jarri elozu «Anaitasuna» letrero bat.

DISKO BERRIA**UMEENTZAT IPUINAK**

1. TXANO GORRITXO
2. HIRU TXARRIKUMEAK

Disko-denda guztietan salgai

ASTE AMAIERA BAT GORBEAN

Aurtengo udazkena, giro epelez, mendira Igotaldiak egiteko gonbitaroa izan da. Nork ezetz esan holako okasioei?

Zortzi lagun ginen, larunbatean* Gorbeara igon eta Igandean* jaisteko. Lo non egin? Bai, hori zihur geunkan, Gorozikako hogeitai sei gaztek Aginaldean egin berri dauken txabolan. Txabola esan dot; baina ez dakit izen hori eman leitekion, hogeitai ta zortzi ohe, dispensa, bodega, komuna, dutxa eta garbitasunerako behar diren tresna guztiekin eta berrogei ta hamar lagunek lasai jateko sutegi egokia daukan zerbaiti.

Jatekoa, bai: beste zortzi lagunentzako aina*. Bertan, afaldu ondorean, Bilbo ta Lemonako batzuk gehitu jakuzen, eta, kafea hartzeko garalan, hamasei lagun batu ginen.

Txurrutarekin eta baraurik bertsoa egiten dakienak gengozen. Bigarrenetarikoak, lehengoetarikoak baino gehiago. Honeen artean, Pujana, Irazabal anaiak, Sagardui anaiak, Aldana eta Jon Azpillaga. Gainerakoak, txurrutaren laguntza beharrekoak.

Hainbat bertso eder eta xeble esan ziren, gaien agintzetara eratuak. Ondoren, besteei heldu jaken ordua, eta... ederrak entzun beharra izan zan.

Biharamunean, eguna zabaldu baino lehen jaiki ginen, eguzklaren irteera ikusi beharrez. Zein ederra dan irteera hau. Haundia da Jainkoa, eguzkiaren txinpartak, bizitzako argi hariak, egunero gure mundu ilun honetara bidaltzen ditualako. Txabola honetatik gurutzerara, gailurrera, «Gurutze Bidea» dago. Ordu betean, gora eta gora joan ginen. Goian, oso une laburra. Nor egon, han egoen hotzarekin?

Txabolaratu, bazkaldu, eta azkar jaitsi ginen gauaren bildurrez. Etxerakoan, hainbat gauzaz berba egin ondorean, gaurko ekonomia gaietara ekin geuntsen. Eritziak biribilduaz joazen apurka apurka, eta, gutxi gorabehera, era honetara izan zah azken epaia: Nik ez dakit ministerio ez hazienda ez gainerakoen berririk. Bizkaia bere burua elikatze* kapaz ez dala ere maiz* askotan entzun dogu. Baina... Bizkaiko lan egitearen eta kapazidatearen ezagugarrikeria argi eta garbienaren testigantzarik ederrena, hementxe, geure oinpean, kami-noan daukagu:

Bilbotik Gasteizera alderdi, Barazar guztian (Arratian ere toki askotan) hamar zentimetro beheratua, sakondua dago, kargak eroan beharrez; eta beste aldea, zirkunik egin gabe.

Atera, atera, atera... Ekarri, ezer ere ez.

DEUNORO

ZORNOTZA

Oso aurreratuak doaz Bilbao-Behobia autobideko lanak. Erdal egunkarietan irakurri dogu, uztaileko* amaituta egongo dala Zornotzatik Basaurira doan zatia. Egia esan, gure herrian ez dira hain ondo portatu. Danok dakikezue*, zelako konponketa egin deuskuen Larrarako bide ederrean. Tunel itsusi bat egin dabe, hage* batzuekin arazoa konpondu beharrean.

Dinamitzako esplosioak ere ez dira edozelakoak izan; herria handik hurre dagoela kontuan hartu barik. Dana dala, laster utziko gaitue baketan, eta erdal langileen uhina* ere gutxiagotuz joango da.

Giro epelean Iragan* dira Gabonetako Jalak. Ez dira memento alaiak izan Euskal Herriarentzat. Jal honetako ezagugarri gutxi agertu izan da. Udalak*, ohiturari jarraituz, arbola eder bat jarri dau betiko lekuan; baina aurtengoa, argi ori eta gorriekin hornituta.

Orain direla egun batzuk, zenbait* herritarren automobil neumatikoak zulatu egin ditue tresna zorrotz batez. Gauz eta izkutuan egin dabe «lana». Lehendik ere ezagutzen ditugu honelako edo antzeko jendeen frutuak: esaterako, igazko pintaketa, Don Pedro apaiza iraintzen* eben* paperen zabalketa, eta abar. Arbola txarrek beti ematen ditue frutu ustelak.

LEUNGANE

ETXEBARRIA

Gure gazteak, Isilaldi baten ondoren, berriro hasi jakuz antzerkirako euren trebetasuna erakusten. Lehengo igandean*, «Ameriketako Osaba» antzeztu euskuen. Lehengoak dotore egin bazituen, oraingo hau dotoreago. Abestietan —hiru ta lau bozetara— ez ziren beste batzuen mailara heldu harenbaten*; baina aste beteko orrataldia nahiko izango dabela uste dogu, goi maila batetara heltzeko. Antzerkia bera, polita, jostagarria, euskera gozoduna. Baten batek, izan leiteke atsegin ez izatea, «zerik» ez daukala ta. Baina, baserritarkeria edo arlotekeria edo beste -keria bategatik, nahiz eta aparteko «zerik» ez izan eta problema sakonik ere ez aztertu, ez al da mesedegarri, beste dohai horreek izanez gero?

Aldizkari honetan kronika hau agertu orduko, Amorothon eta Markinan ere egingo dabe, eta gertu dagoz beste toki batzuetara ere joateko.

Beste antzerki bat ere erdi gertaturik-edo el dauke, oraingo honen ostean egiteko. Eten barik, aurrera gazteok.

URKO

MUNITIBAR

Elortzako Josebe Artiatx, udaleko* kontzejal izendatua izan da. Notizia honek poztu egin gaitu, herriko agintarietan emakumezkoak ere sartzen hasi jakuzela ikusten dogulako. Suerte on bat opa deustugu kargu gaitz horretan, emakume.

Azken unada* honetan ba dirudi gure herriak ez daukala suerte haundirik. Bilboko klinika batean hiru herritar ditugu: Zelesti Andueztako, Maria Txoriñeneko eta Juan Irusta. Bakoitzari herrira Itzultzea opa deustagu. Kanterako Urrupia ere joan jaku bizen-artetik. Familiakoan doluminetan parte hartzaile gaituzu.

Erregeerietako, teatro bat egitekotan egon da herriko gazterla; baina mutilen lotsakortasunez ez da posible izan egitea. Batek ezetz esan el* eban, eta gero guztiek erreskadan. Zer da hau, mutilak?

Hala eta guztiz ere, neskatillek ez dabe etsi*, eta, San Jose Ingururako; neska hutsezko ekitaldiren bat egiteko prest dagoz, edo bestela Mendexa aldetik edo monbaitetik teatro talderen bat ekartzeko. Ekin animoso, neskak. Hori da hori! Honelako martxan, ez jaku batere harrigarri izango, udaletxea* emakumez hornituz doala ikustea.

ERRAMON GERRIKAGOITIA

GIZABURUAGA

Gizaburuaga tristerik

Bizkaiko Gizaburuaga herritxoa goibeldurik gelditu izan da, Leniztarren taberna hitxi dabenez geroztik. Leniz jaunak, bere emazte Josefak eta euron alaba Marisabel eta Terek ez dabe ondo ulertzen zigor hori.

Euskaldunen txaletak

Bilboko euskaldun aberats batzuek txalet ederrak egingo ditue Bizkaiko Laukiniz herritxoa, Unbe mendiaren sorbaldan. Txaletak egingo diren tokitik, hamar kilometro dagoz Bilbora, zortzi itsasertzera, bi ta erdi Unibertsidadera, hiru Martiartura, eta lau Landatxuetara. Txaletok kooperatiba antzera egingo dira, eta elkarte horren burukideak honeexek dira: Lehendakaria Antonio de Madariaga, idazkaria José Francisco Murga, diruzaina Javier Garaizar, bokalak Gaspar Codoñer, Andoni Ariño, Unai Arteche, Alfredo Echave eta Pedro Aurtenche.

Nik ba dakit, holakoxe etxeetan bizi behar geunkela guztion. Baina «odium plebis» dalakoak zeintzuk arrazoi dituan ere ba dakit.

ETORKIZUNAK KEZKATZEN BAZAITU

SARTU EIZUZ ZURE DIRUAK

G E S T E V A L - E N


FONDO DE INVERSION MOVILIARIA




Garantizatzen ditugu:

1. IRABAZI ONAK
2. DIRUA ESKUAN
3. INBERZIO ZIHURRAK

Ez euki alfer-egonean zure diruak



Gure diruak BANCO ATLANTICO-K
babesten ditu.



Argitasun gehiagorako, idatzi naiz deitu:
GESTEVAL, Fondo de Inversión Mobiliaria.

Particular de Estraunza, 3, bis 1.º
Tel. 41 59 12 eta 41 37 66
BILBAO-11

HIZTEGIA

Ale honetan izartxo bategaz agertzen diren berbak

Imanol Berriatuak

ABELGORRI, **ganado vacuno**.
ADIN, edade.
AGIAN, **acaso, probablemente**.
AHULDU, makaldu.
AINA, beste, bezainbat.
ALBISTE, berri, **noticia**.
ALEGIA, **es decir, esto es**.
ALOKATU, **arrendar**
ALOR, arlo.
ARAUERA, **según, conforme**.
ARE, oraindino.
ARI IZAN, jardun.
ARITU, ari izan, jardun.
ARTALE, arto ale, **grano de maíz**.
ASKI, nahiko.
AT, kanpoan, **fuera**.
AZTARREN, **rastro**.

BAILEGOKE, bait legoke, legoke ta.
BAITA, bait da, da ta.
BAITAITEZKE, bait daltezteke, daltekez eta.
BALDIN, kondizioa indartzeko berba.
BEDEREN, behintzat, behinik behin.
BEHAR, lan.
BEHARGIN, langile.
BEHINEN, **primario**.
BERAIEK, eurek.
BERAZ, hori dala ta, **por consiguiente**.
BILDU, batu.
BOLADA, unada, **período de tiempo**.
BULEGO, **oficina**.

DAGOKE, dago nonbait, **debe de haber**.
DAKIKEZUE, dakizue nonbait, jakingo dozue.
DARAMATE, daroe.
DARRAIZKIE, jarraitzen zalzkie (jakez).
DATEKE, da nonbait, dala uste dot.
DEI, deitu.
DEZAGUT, ezagutzen dot.
DIRATEKE, dira nonbait, **parece que son**.

EGINEN, egingo.
EI, omen.
ELIKATU, **alimentar**.
EPE, **plazo**.
ERABAT, guztiz, **completamente**.
ERAKUNDE, **institución, estructura**.
ERDITU, **parir** (ikus «Sustrai Bila», 101. orrialdea).
ERORI, jausi.
ERRO, sustrai.

ESKUALDE, **comarca**.
ESTOLDA, **alcantarilla, égout**.
ETSI, **desistir, perder la esperanza**.
ETSITZEKE, etsi gabe, **sin desistir, sin cejar**.

FADURA, marisma.
FROGATU, **probar, demostrar**.

GAIZKOATU, **agravarse, empeorar**.
GANTE, **guante**.
GERTAKARI, gertaera, jazoera, **suceso**.

HAGE, **viga**.
HALABER, berdin, **igualmente**.
HARAN, **valle**.
HARENBATEN, nonbait, aglan, aurki, hurrean
HARTZEKE, hartu gabe.
HASTAPEN, hasiera.
HAUR, ume.
HAUTATU, aukeratu, **elegir**.
HAZKUNTZA, **acción de criar**.
HEDATU, **extenderse**.
HELBURU, **fin, objetivo**.
HERRIALDE, **provincia**.
HERTSI, hestu.
HEZIERA, **educación**.
HEZIKETA, **educación**.
HONDA, hondatu.
HOTS, **a saber**.
HURA, ha.
HURBIL, hurre.
HURIGINTZA, **planificación urbana**.

IGANDE, domeka.
IHARROSI, **sacudir**.
INGINADORE, **ingeniero**.
INKESTA, **encuesta**.
IRAGAN, igaro, pasatu.
IRAINDU, **injuriar**.
IRAULTZA, **revolución**.
IRITXI, heldu.
ISTRIPU, **accidente**.
ITAUNDU, galdetu.
IZANEN, izango.

JOSTAILU, **juguete**.

KATAMIXAR, **ardilla, écureuil**.
KAZETARI, **periodista**.
KIROLA, **deporte**.

LARREGI, gehlegi.
LARUNBAT, zapatu.

LEGAZALE, **merlucero**.
LEGETXE, letxe, bezalaxe.
LEGEZ, lez, bezala.
LOT, lotu, **dedicarse, limitarse**.

MAIZ, sarri.
MAMITU, mamindu.
MEA, **mineral**.
MEATOKI, **mina**.
MENDE, **siglo**.
METALENGOIA, **metalenguaje**.
MUNA, **terreno elevado**.

NABARI, **notorio**.
NABARMENDU, **distinguirse, destacarse**.
NARRAS, **desaliñado, negligé**.
NEKATZEKE, nekatu gabe.
NOLABAIT, zelanbait, zelan edo halan.

OHAR, konturatu.
OHIZKO, orainarteko, **habitual**.
OLA, **fábrica**.
OLDAR, **ímpetu, empuje**.
OMEN, ei.
ORDEA, baina, berriz.
OSTERA, ordea, berriz.
OSTERANTZEAN, bestela.

PARADA, **ocasión**.
POZARREN, pozlik.

SERORA, **hermana rreligiosa, sor**.
SOIL, **puro, simple, mero**.
SOILKI, **pura y simplemente**.

TXOLINDU, **ponerse alegrillo**.

UDAL, **ayuntamiento**.
UDALETXE, **casa consistorial**.
UHIN, olatu.
UKAN, euki.
UKANEN, ukango, eukiko.
UNADA, **bolada, período de tiempo**.
UNTZE, iltze.
URTARRIL, **enero**.
USTEL, usteldu.
UZTA, **cosecha**
UZTAIL, **julio**.

XEHETASUN, **detalle**.
XUME, txiki.

ZAIL, gatx.
ZENBAIT, batzuk.
ZEREN, ze, **pues**.
ZUZI, **tea, antorcha**.



PENTSUAK

Sarb-en ardurapean eratuak

Zure etxeko behi, txahal, egazti,
ardi, koneju, nahiz txerri,
onuragarri izan ditzazun,
emaiezue Ongarri.

VALLE DE ATXONDO (Vizkaia) - Tel. 11

EUSKAL EDITORIALEN KOORDINATZE BEHARRA

Zorlonean, azken bolada* honetan, udaberriko perretxikoen antzera, euskal editorial gazte eta dinamiko batzuk sortu zaizkigu. Itxaropenak eta Auspoak, egia da, lan balioso bat egin dute nola-bait* orain arte; baina haien lanak hutsunearen zati bat besterik ez zuen tapatzen. Euskal literaturaren zuzia* ez zen itzali, haien esker; baina, bestela ezinean, sua nahiko ahulduta* zegoen.

Alde batetik bertsolariak, poesiak, ipuinak eta nobela kostunbristak oso ederki egon zitezkeen sasoi baterako; baina oraingoan haize berriak behar genituen.

Orain, zorlonean, bost editorial ditugu gutienez, izenez behintzat, halako periodikotasun batez publikatzen hasi edo hasteko direnak: Lur, Irakur Sail, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Etor eta Jakin. Neronek, berrien artean, ez dezagut* besterik. Barka biezadate, beraz*, baten bat aipatu gabe utzi badut. Guztiotatik uzta* ederra espero daiteke, dudarik ez.

Zer publikatuko, baina? Euskal kulturaren alorra* la birjina eta urratu gabea da oraino; dena, edo ia dena, egiteko baitago. Gure aurreko jaun mitifikatu askori esker, beraiek* euskal kulturaz erderaz idatzi zutelako, ez unibertsal kultura bakarrik, baizik eta euskal kultura ere euskeratu beharrez gaude. Hau lanal!

Hastapenetan gaude, hasieran. Zer egin, ordea*? Neronek uste dudanez, bi zeregin dira une honetan printzipalenak. Bata euskal gaiak, hortik sakabanatuta daudenak (Historia, Linguistika, Etnologia, Geografia, Literatura, Ekonomia, Musika, Erljioa, Estetika...), euskeraz itzuli eta laburpen sakonetan argitara eman, honela euskeraz Euskal Herriko bibliografia bat egon dadin, modu honetara, euskal gaietarako, erderapeko morrontza galduaz. Liburu hauetan kulturazko hiztegia (metalengoa*) ongi finkaturik letorke, eta, liburu hauk oinarritzat hartuta, berehalaxe atera litezke ikastoletarako laburpen erraxagoak.

Bigarren zeregina munduko kultur gai inportanteenak, hastapenak* gisa, publikatzea lizateke (Munduko zibilizazioen Historia, Geografia, Etnologia, Literatura, Psikologia, Ekonomia, Astronomia, Eboluzionismoa, Filosofia, Politika, Biologia, Matematika, Munduko erlijioen Historia, Kimika, Fisika...). Liburu guztilotan teknikarako hitzak ongi finkatuko lirateke, ordutik aurrera denok metalengoa* tekniko hori modu berean erabil dezagun.

Aipaturiko zeregin biok hasiera hasierakoak lirateke, oinarritzko gai hauen ondoren, bestelako liburu guztiak ateraz. Materia guztio-tako autore klasikoan lan printzipalak (Darwin, Marx, Engels, Freud, Teilhard, Russell, Malinowski, Saussure, eta abar) osorik edo zatika itzuli beharra dago. Honez gain, munduko literatura aberatsenetako klasikorik hobereenak edo nabarlenak* apurka apurka euskeratzen ari* beharko genuke, hala nola: Shakespeare, Dante, Cervantes, Molière, Goethe, Dostoiévski, Tolstoi, Zola..., eta bai gaztetxoentzako klasikoak ere (Verne...), honetarako itzultzaile profesional eta konpetente talde bat sorteziaz.

Kultura jeneralezko obrak egiterakoan, ez da amateurismo batean erori* behar, Mediterraneoan berriro topatu nahiz. Beste hizkuntzetan dauden lanak hobereenetatik (ingeles, frantses, aleman edo errusotik) mamia hartu behar dugu, batere lotsarik gabe. Kultur gaietan ez dugu horrelako piratakerien beldur izan behar, gose denak lapurtzean lotsarik ez duen bezalaxe.

Azkenez, oinarritzko kultura hau lortuta gero, lan orijinalak, estudioak, saiok, literatura eta abar argitaratuko lirateke, euskeraz eginak, editorial bakoitzaren gustuen arauera*.

Baina, gauden memento honetan ere, lan banaketa bat egin behar da, editorial bakoitza atal konkretu batzuei lot* dakien, elkarri alferreko konpetentziarik egin gabe. Guztioentzako lana dagoez gero, editorial arteko burruka honetatik Herria aterako lizateke galtzaile bakarra, eta ez inor besterik.

Konkurrentzia beharrezkoa da, bai. Baina horretarako daude prezioak, presentazio modua, itzulpen balioak eta abar. Oraingoz aski* dateke* berau, konkurrentzia zintzo baterako.

Beraz*, ene eritziz, editorial guztiek elkartu beharra dadukate eta programatze koordinatu bat egin, bi editorial batera lan bera egiten edo itzultzen aritzea* gerta ez dadin inol. Eta koordinazio hau egitea oso erraza eta posiblea dateke*.

Bestalde, antza denez, editorial hauetarik batzuek honez gero atal determinatu bati jo diote begia. Sociedad Guipuzcoana de Publicaciones-ek, kasu, euskal literatura klasikoaren atala hautatu* duela dirudi. Lur-ek sozial gaiak hartuko omen* ditu, eta bai halaber* Etor-ek. Irakur Sail-en programa interesgarria ikusita gero, ba dirudi, beronek, besteen espezializazio gehiegiaren kausaz, denetariko lanak argitaratu behar dituzkeela. Jakin-en programa ez da oraino ezagutzen. Dakusagunez, orain ere ez da batere konpetentziarik liburuaren gaiaz; baina ba dira, ordea, atal oso ezberdinki banatu batzuk. Zergatik ez dira editorial guztiak biltzen*, oinarritzko programa bat egin, eta, hori bete arte, denek batera jokatu? Oso erraza lizateke, bat literatura klasikoan espezializatzea, bat Euskal Herriko kultura, beste bi unibertsal kultura eta bostgarrena klasikoan itzulpenetan, literatur saila hartuta. Edo, bestela, editorial bakoitzari halako proportzio bat eman gai bakoitzetik, programak ugariagoak daitezzen.

Koordinatze hau eginez gero, agian* urte batez besteko lizateke gure oinarritzko kultur hutsunea, eta gauzak hobeki lihoazke ordutik aurrerantzean. Eta berau ez da hain lan zaila*, zeren*, honez gero, munduko klasiko askoren itzulpenak (ikus San Martinen «Escritores euskéricos») eginda baitaude, eta bai Politika, Soziologia, Ekonomia, Filosofia, Linguistika, Geologia, Eboluzionismo eta beste honelako materiazko lan batzuk, zenbait* argitaratuta eta beste batzuk argitaratzeko prest.

Bestelakorik frogatzen* ez daudaten artean, guztien borondate onean sinesten dut; eta borondate ona da, hain zuzen, honetarako behar den bakarra. Elkar gaitzean bai! Ez ote dakusagu, ikastolak eta alfabetatze eta kulturatze taldeak gure premian daudela? Ea bai!

XABIER KINTANA

blezadate, **belste**
dadukate, **dauke**
dakien, **dakioen**
dakusagu, **dakusgu (Ikusten dogu)**
daude, **dagoz**
dautate, **deuste**
dezagun, **daigun**
diote, **deutsoe**
gaude, **gagoz**
lihoazke, **leloazke (Joango lirateke)**
litezke, **leitekez**
zalzkigu, **jakuz**
zitezkeen, **eitekezen**

ERITZIAK

Azken zenbakian, «Irakurleak hizlari» saila sartu genduan ANAI-TASUNA honetan. Orrialde hau gogoz Irakurria izan dala ikusi dogu. Zure eritzia jakin nahi geunke, guk eta Irakurle guztiek. Aurrez ohartxo bi. Bata: kartak ez daitezela luzeeglak izan. Eta bestea: zuzendaritzaren esku gelditzen da zein karta publikatu edo zer moztu, hala komeni dala uste izaten bada.

